

KULISKA SORTA

Geure ezerez ta kaskartasunean, beraz geure begiak eurekana zuzendu ta eurak eredutzat artu bearrean gagoz.

Ba-dogu guk Enbeita´gandik zer ikasi. Geure enda-oleskari genduan, sakon ta alai, ara ta ona aspertu barik ainbat urtez ibilli zana. Abots ozen ta zolitan gure lurraren edertasunak, gure mendien anditasunak, ibar ta aranen berdetasunak, txori ta zugatz, erreka ta abere, oro kanta eban urretxindorraren eztarri leunak. Bertsolarien ekanduai jarraituz, gure zer guztiak jaso ta garbistu ebazan; aren bertso goriak illezkortasuna jaritxi eben, euskera gogoaren izate berezia olerkiari dirdarrietan dardar guri itxirik; gure erriaren poz eta atsegiñak, gure min eta itxaropenak, ames eta lillurak osoan aizatu zitun.

Ona Lopez-Mendizabal´ek Enbelta il zanean idatzitakoa:

Txorietan buruzagi
Urretxindorra kantarl
Kantatzen dizu ederki
Goizean argi asteari:
Aren abesti ederrak
Txoraturik naukate ni!

Onela dio abesti zar batek, eta au **berm** esan genezakean Enbeita dela, Muxika´ko Urretxindorra. Euskalerrri guziko olerkarien artean Enbeita zan urretxindorraren antzera guzien gañetik bere abestia pozik entzun-azten zizkiguna. Goitik artutako gaitasun bat zuen, noski, ainbeste eta ainbeste guziak txorutzen zituenean. Olerkari onak besteak ere izan arren, Enbe[ta astean guzien begiak beregan josten ziran. Ba-zirudien guzien biotzak bere aide ekartzen zituela.

Nork, bera bein bakarrik entzun duenak, ez du beti gogoan Izango bere txukuntasuna, bere zolitasuna, bare abertzaletasuna? Garbia barrendik, txukuna kanpotik beti agertzen zitzaigun gizon berezi on. Bare itzetan ez genduen iñork beñere entzun orrelaonelako itz oker bat ere. Beti goitik, arranuaren egaldia bezela, ez genduen beñere ikusi lokatzetan zlkintzen. Orrelako gizonak gutxitan sortzen dira, bai, oso gutxitan, eta eredutzat beti gogoratuko degun (Buenos Aires´ko Euzko-Deya P1943, 6 or.).

Bare bizialdi osoko jokabide zIntzo onetzaz galñera, ba-ditu Enbeita´k beste alderdi edo zearotasun batzuk be gure eredu egin daroenak. 1) Gala; 2) jatortasuna; 3) bertso-neurkera.

Gaia askotarikoa dau Enbeita´k. Inditar ta euskotar arimea kideko dirala, esan oi da. Tagore dogu Inditar olerkaririk goren. Eta zer abestuten ete eban onek? Eurl, zugatz, txori, bidazti galdu, lore zimel, arima mindu, neskatx eskale ta antzekoak ziran berak erabilli oi ebazan kantagairik eskuartekoenak. Olerki

samurrak osotu eroazan, artzain-kanta, matte-lelo, aberrikantu jagi ta sutsuak.

Gure oleskariak be orobat dagi: gure euskal erri onek bare-bare dabezan gauza guztiak abesgai, intziri samur biurtu; Jaungoikoa, izadian zabal ta batez gure lur-gain zabalean ain sorkari ederrak aukeratu euskuzana, urretxndorra baizen kantu gozoz goretsi; gurean sortu ta andi izan diran gizonak, jakinlari, itxastar, kirolzale ta **galñontzekoak** eredu lez gure begi aurrean dizditsu jarri; euskaldun semeen egintsari arrigarriak gorai patu; sukaldean amamak eras ta erri-aoan bala-bala dabilzan alegi ta ipuiñak bertso irrikotetan ipiñi. Gai arrunta, edozeiñena? Bai, baiña Enbeita´k baizen gozo, sakon, eragikor iñok be erabilill bagakoa. Ba-ekian arek nora jo euskaldunari dardar eragiteko: adimenera ez, baiña bai biotzera. Nik eginda daukadan bilduma andian au zatitan sailkaturik daukadaz aren bertsolan guztlak: errikoiak, jainkozkoak, ipuiñak eta aupazkoak.

2/ Eta latortasunarl buruz, zer? Itzez esateko bertsorik ez eban Enbeita´k egin, Orixe´ri atsegin yakozan kantatzekoak baiño. Eta onelk etziran iñun ikasiak, ez erdel-libururik ez euskal-libururik ez bait-eban orretarako; ezta astirik be. Darabilen bertsa gala, bada, bere-berea dau. Eder-iturri bi ditugu, izadia ta norbere gogo-zokoa; zentzunetatik zear, begi ta belarri, izadiko gauzen edertasuna barrentzen yakon, eta onekin nastauaz bere barreneko eder-senaren ore, aapaldi txinpartatsuetan lertzen yakon arimea. Ortik, bada, itxi euskuzan bertso-sail guztiak, diran lez gozo ta andi, bere gogoaren arnas ta zauskada besterik ez doguz.

Bere-bereak, jatorrak, baste iñoren kutsu bageak. Mendiko Iturri ugariak ez dautso iñori urik zor.

3/ Bertso-neurkera, barriz, askotsua. Gelenetan eta kantu **ja~leiarako** zortziko nagusia erabilill arren, neurri askotariko aapaldiak ditu. Gitxitan baiño erabilten eztranak be bat; erriko kantuetatik jasotako neurkera apartekoak dira nunbait, zazpl ta bostekoa, zazpl ta seikoa, zazpi ta zazplkoa, zortzi ta seikoa, zortzi ta zortziko. Neurri ezbaridiñak naste be askotan darabilz.

Baiña auxe autortu bear dot: millaka ta millaka bare aapaldietan, edo puntuetan, bat bera be, esan gengike, ez dogula Moro txarto amaiturik; guztiz lru edo lau ditu bada-ezpadakoak azken amaitze bardintsu orretan ain egoki ez dagozanak; baitia baste guztiak osotasun osoz eglñak ditu elertiak eskatzen dauan alderdi ortatik. Ondiño. gelago: azken-bardiña edo rima dalako hori ez-eze, silabaen neurria orobat ardura berarizkoz zaindu eban gure oleskariak. Esan dogu: berak kantuz edo kanturako egin ebazan oleski guztiak, eta naitaez doiñuaren barrutian jokatu bear. Bat-bateko bertsoetan be, beti zaindu **of** eban osotasun au; orduetan bertsoz jardun arren, be, silaba gainetako labanik edo arturiko neurrian, doiñuari ez dagokion baiño silaba geiago sartzerik ez eban arek egingo. Bertsolari ta olerkarien arau onein jopu genduan beti.

Auxe genduan Enbeita, olerkarl batek diñoskunez: «Biotz garbi, zidar-abots, gogo **zolf**»; gure mend! ta baserriak bikaiñenik beikaiñen abestu ebazana; gure lege ta oiturak zer diran esan euskuna; guk geure zaintzeko zelan jokatu bear genduan adiarazorik, bertso-sallik ederrenak abestu ta idatzi ebazana. Jarralgarri, baita, goazen berak urraturiko bltxidor zear.

Aita Onaindia ´rena

Pedro Berriategortua - Erretiratua - (Atxondo)